

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak hainbat jarduera bete behar ditu. Horien artean, jarduera garrantzitsuenetako bat ekoizpena da, hau da, eskumuturrekoaren fabrikazioa.

Hori bete ahal izateko, lehenik eta behin produktua egiteko lehengaien eta gainontzeko osagaien erosketak egingo ditugu, hau da, baliabideak eskuratu. Behin baliabideak eskuratuta gure produktua osatuko dugu eta horretarako hainbat azpi-enpresa kontratatuko ditugu, hala nola, Información y Servicios de Samatel Rioja S.A enpresarekin. Horrela, kostuak minimizatzeaz gain, gure produktuaren eraginkortasuna bermatzen dugu.

Health W pultsera amaituta egon eta gero, banaketa lanak egitea dagokigu. Pertsona guztientzat eskuragarria izango da, farmazia eta osasun zentro guztietan. Hori gutxi balitz, interneteko webgunetik (<https://hernandezandoni.wixsite.com/healthwristband>) eskuratzeko aukera dute bezeroek. Horrela, etxetik eskatu eta aste bat geroago, gehienez, eskuragarri izango lukete.

Gure webguena antolatzeko ez dugu kanpo informatika zerbitzurik kontratatu behar, gure enpresako pertsona batek hartuko du ardura hau. Horretan eskumuturrekoaren inguruko informazioa eta datuak eguneratu behar dira. Gainera, bertan, proiektuaren azalpen txiki bat jarri dugu eta gure webgunean izenpetuz bertan dauden berri guztien ohartarapenak jasotzeko aukera egongo da. Noski, webgune horretatik eskumuturrekoak eskatu ditzakezu, dendara joateko beharrik izan gabe. Hori gutxi balitz, bezeroek haien iritzia jarri ditzakete webgunean eta horrela guk, guztiak begiratu eta horrela eskumuturrekoan aldaketa txikiak egiteko aukera dugu.

Iragarki kanpainak lantzerako orduan, osasun zerbitzuarekin harreman estuak izan beharko ditugu. Horretarako, gure produktua erakargarria izan behar du, gurekin haibat proiektuetan kolaboratzeko.